

# BIZITZA BERRI BATEN BILA

Kalean izugarritzko beroa egiten du, eguzkiak gogor jotzen baitu. Umeak jolasean dabilta, beste batzuk hizketan, beraien txutxu-mutxuak elkarri kontatuz. Gurasoak, berriz, tabernako mahaietan eserita, eta beste batzuk paseoan. Edozer gauza egin daiteke uztaileko eguraldi honekin.

Nire lagunak igerilekura joan dira, baina, nik, ezin dudala esan diet. Ez diet zergatirik esan, ez baitzait gustatzen nire aitaz, laguneren aurrean hitz egitea. Nire amari ere, ez zaio gustatzen nire aurrean gai horretaz aritzea. Izan ere, nire aita ez da gurekin bizi. Nire amak esan zidanez, nik bi urte ere ez nituenean, auto-istripuan hil zen. Amari askotan galdetzen diodan arren, gaiez aldatzen du. Ez dakit zergaitik, baina, ez dut guztiz sinisten aitari buruz kontatu zidana. Baliteke nire gauzak izatea, baina, aztertu egin behar dut.

Gaur, etxean bakarrik nagoenez, etxe guztia miatuko dut, ea aitaren zerbait aurkitzen dudan. Horixe izan da, lagunekin ez geratzeko arrazoi bakarra. Lehenik, sala arakatuko dut, ondoren, trastelekua eta amaren logela azkenerako utziko dut. Hasi naiz miaketarekin. Salako kaxoi guztietan begiratu ondoren, argazki bat aurkitu dut. Ama, ni, eta beste gizon bat gaude argazkian, huraxe izango da nire aita. Denbora luzean begira egon ostean, bere lekuan gorde dut. Trastelekua, gauza zaharrez beteta dago, hemen ez dago aitaren ezer. Orduan, amaren logelara joan naiz. Aitaren eta amaren argazki mordoa ikusi ditut. Aitak, gizon sendoa ematen zuen, eta, oso zoriontsua, amak bezalaxe. Argazkien ondoan, burdinazko kaxa bat aurkitu dut, irekitzeko, giltza bat behar da, eta ez dut aurkitu hemen inguruan. Kaxaren gainean, gutun bat aurkitu dut, hauxe dio gutunak:

*“Kendu eta kendu, handitu egiten den tokian, “W” eta “Y” ren artean dagoen hizkiaren, eta, oso indartsua den norbaiten azpian”*

Asmakizun bat dela uste dut. Baliteke, giltza bertan gordeta dagoela. Baina, oso zaila ematen du. Asmakizuna asmatzeko, hiru gauza hartu behar ditut kontuan: Kendu eta kendu, handiagoa egiten den tokia, “W” eta “Y” ren artean dagoen hizkia, eta, oso indartsua den norbait. Berehala konturatu naiz, “W” eta “Y” ren artean dagoen hizkia, “X” dela. Baina, zer egongo da “X” letraren azpian. Kendu eta kendu, handiagoa egiten den tokia, zer izango ote den denbora luzean pentsatu ondoren, indartsua nor izango den pentsatzen aritu naiz. Baina, jende asko da indartsua, nire osaba, nire aitona, nire bizilaguna, ni neu... Gurutze formako letra horretan aritu naiz pentsatzen. Denbora luzea buruari birak ematen egon ondoren, jakin dut zer izan daitekeen. Lehengo batean, amonaren etxean nengoela, nire lehengusuari, atarian dagoen harri handi bat mugitzen lagundu behar izan nion, zerbait erori baitzitzaion. Orduan, ikusi nuen, lurrean marraztuta “X” letra handia. Listo, badakit. Kendu eta kendu, handiagoa egiten den tokia, zuloa izan daiteke. Eta, harri hura oso indartsua da. Beraz, segituan pentsatu dut zer egin, harria kendu, eta pala batekin zuloa egin beharko

dut. Agian, bertan egongo da kaxaren giltza.

Beraz, jantzi eta amonaren etxerantz abiatu naiz. Bidean, amonari deitu diot, ea non dagoen jakiteko. Esan dit, aitona bisitatzera joan dela ospitalera, eta ez dela iluntze-arte itzuliko. Amonaren etxera iritsi bezain laster, ukuilura joan naiz pala baten bila. Pala hartu, eta harri handia dagoen lekura joan naiz. Harri puska hori mugitzean, ikusi dut “X” letra. Palarekin hasi naiz lanean, baina konturatu naiz, ez nuela zulorik egin beharrik, eginda baitzegoen. Letra hori, trikimailu bat zen, zuloa eginik zegoela ez ikusteko. Zena zelako hori kendu, eta izugarrizko zuloa zegoen, bertan, txalupa txiki bat zegoen, bi arraunekin. Txalupa atera, eta, gainean gutun bat zegoen. Gutuna ireki eta...

“Bermeoko Izaro uhartera joan beharko duzu txalupa honekin, zure aurrean duzunaren zulo berdinean zerbait aurkituko duzu, lagun baten laguntza izan ezazu”

Halaxe egingo dut, ez dakit zer izango den, baina egin nahi dut. Zuloa estali, harria ipini, pala ukuiluan gorde eta lehengusuari deitu diot, kotxearekin nire bila etortzeko esanez. Berari bakarrik kontatuko diot, seguru nago, berak ere, nahiko duela abentura polit hau bizi. Txalupa, autoaren atzealdean gorde, eta dena kontatu diot. Berak ere, nirekin etorri nahi duela esan dit, eta Bermeora joan gara autoz. Bertako hondartzaren ondoan utzi dugu autoa. Inguruko denda batean, bazkaltzeko nahiko janari erosi dugu. Txalupa uretan sartu, eta arraunekin, lanean hasi gara. Kostata, baina azkenean iritsi gara Izaro uhartera. Eskerrak, olatuak handitzen hasiak baitziren! Harri handia, segituan ikusi dugu, harria mugitu, “X” letraren alfonbra edo dena delako hori kendu, eta, oraingo honetan, bi bainujantzi, bi oxigeno botila, uretako bi betaurreko, eta, bizkar zorro bat zegoen gutunaren gainean. Gutunak hau zioen:

*“Utzi txalupa zulo honetan, bainujantzia eta betaurrekoak ipini, eta segi etorri zareten lekutik, oxigeno botilak gorde bizkar zorro honetan. Bidean, “X” letra egongo da lurrean marraztuta, ikusten duzuenean, hartu oxigeno botilak, eta zuloan beste zerbait aurkituko duzue”*

Igerian goazela, oihu bat entzun dut nire ondoan. Nire lehengusua da, badirudi aurkitu duela letra, oxigeno botila jarri, eta “X” letra non dagoen seinalatu dit, a ze kolore ikusgarria, sakon sakonean dago. Irtsi gara, eta, “X” letra jartzen duen hori kentzean, giltza aurkitu dugu. Horixe izango da burdinazko kaxaren giltza. Etxera joan gara. Amaren logelara joan, eta kaxa hartu dugu. Bai! Ireki dugu. Gutun bat dago idatzirik, halaxe dio gutunak.

*Kaixo Xanet:*

*Ni naiz, zure aita. Seguru nago ez zarela nitaz gogoratuko, aspaldi joan bainintzen etxe honetatik. Badakit, amak, auto istripuan hil nintzela kontatuko dizula, baina gezurra da, nik esan nion hori kontatzeko. Zuk bi urte zenituela, alde egin nuen etxetik nire ametsa betetzeko asmoz. Nik beti izan dut amets bat,*

*txiki txikitatik, eta, amets hori betetzen ari naiz. Nik, betidanik esan dut, uharte batean bizi nahi dudala, inor bizi ez den uhartean, nire familiarekin. Zure ama eta ni ezkondu ginenean, garbi genuen egingo genuena. Grezian uharte asko daudenez, hango uharte batera joango ginen bizitzera, inor bizi ez den lekura. Zu, amaren sabelean zeudenez, pentsatu genuen, zu hemen jaio, eta urte pare bat pasatutakoan joatea bertara, zure osasunagatik. Pasa ziren bi urte zu jaio zinetik, baina orduan, amari, uharte batera joateko ilusioa kendu zitzaion, hemen geratu nahi zuen. Baina nik, hori besterik ez nuen nahi. Beraz, joatea erabaki nuen. Zure onagatik, zu, herrian geratzea pentsatu genuen. Nik, zure beharra sentituko nuela banekien, horregatik, niregana itzultzea gonbidatzen zaitut. Niregana etortzeko, txalupan ibili behar duzu, hau da, inor etortzen ez den uhartea denez, txalupan egin beharko duzu bidearen zati bat. Badaezpada, igeri ondo egiten ere jakin behar duzu. Horregatik idatzi ditut gutun haiek. Ea uharte batean bizitzeko prest zauden jakin behar nuen. Lehenengo gutuna, asmakizun moduan jarri dut, uharte batean bizi beharrak, edozer gauza egin baina lehenago, pentsatzea eskatzen baitu, asmakizunak bezalaxe, erantzuna esan baino lehenago, pentsatzea eskatzen baitu. Beno, etortzea pentsatzen baduzu, zer egin behar duzun esango dizut: Lehenik, hegazkina hartu beharko duzu Greziaraino. Ondoren, bisitariak ibiltzen diren itsasontziz, uharte famatu batera joan beharko duzu, eta, txalupan ni nagoen uharteraino etorri. Greziako uharte famatu hartan erosi beharko duzu txalupa. Gutun honen barruan, Greziako mapa bat utzi dizut, dena markatuta daukazu: Greziako zein lekutan jaitsi behar duzun hegazkinetik, zein uharteraino joan behar duzun bisitarien itsasontzian, zein lekutik atera beharko zaren nireganaino iristeko, eta, zer bide segitu beharko duzun. Eta, ez ahaztu, mapa hau hartzea. Janari eta arropa beharrik ez duzu. Etorri nahi baduzu, amari kontatu behar diozu den dena. Orain ez badizu uzten, hamasei urte baina gutxiago dituzula esan nahi du. Amak, badaki gutun honen berri, nik kontatu nion dena. Barkatu, gezurrarekin hazi zarela, baina ez bota errua amari, mesedez, nire errua da.*

*Muxu bat, zure aita.*

Mapa begiratu dut, eta halaxe zen, berak esan bezala, dena markatuta zegoen. Gezur artean hazi naiz. Aita hilda zegoela pentsatzen nuenean, ezkutuan negarrez aritzen nintzenean, bere ametsa betetzen zegoen. Amari ez diot ezer leporatuko, berak ez du errurik. Aitak alde egin, eta, amak bakarrik hazi ninduen, bera, bere ametsa bizitzen zegoen bitartean, ama gizajoa. Ez dakit zer pentsatu, ez dakit zer egin, ez dakit ezer ere ez. Elurra baina zuriago geratu naiz. Nire lehengusua, berdintsu geratu dela uste dut. Nire lehengusua joan denean, amak utzitako zopa hartu dut, ondoren, sofan eseri eta, pentsatzen aritu naiz. Lehen bezain zuri segitzen nuen, eta, gaueko hamarretarako, ohera sartu naiz, berehala lo hartu dut.

Goizeko hamarretan esnatu naiz, a ze loaldi ona egin dudana. Amari entzuten diot sukaldean. Jaiki eta amari egun onak ematera joan naiz, atzo zer moduz ibili zen galdetu, eta pixka bat berriketan aritu ondoren, jantzi eta kalera irten naiz. Inguruko taberna batean gosalduta bitartean, gutunaz pentsatzen aritu

naiz, gaur ez nengoen atzo bezain zuri. Baina, gauzak ez nituen oso argi ikusten. Esnatzean, amets bat zela pentsatu dut, baina, eskua burkoaren azpian sartzean, gutuna eskuen artean sumatu dut. Orduan konturatu naiz, ez zela amets bat, errealitatea baizik. Pentsatu eta pentsatu nabil, erabakia hartu ezinik. Aitak behar nauela sentitzen dut, eta nik ere, bera behar dudala. Jabetzen naiz aitak egin didanaz, eta, ez dut ahaztuko, baina, oraingoaz, barkatuko diot. Baina, ezin dut ama bakarrik utzi, berak ere, behar nau. Amak, seguru nago, ez duela uhartera joan nahiko. Ez dakit zer egin, agian, ezer pentsatu baina lehen, amari kontatu behar nioke. Badakit! Aitak, gutunean, fama duen uharte baten izena esan zidan. Bertara joango gara oporretan, eta, han dena kontatuko diot amari. Hala, bisita bat edo zerbait egin dezakegu. Beno, lehenengo bertara joan, eta pasatuko da, pasatu behar duena.

Hegazkinean goaz, Greziarako bidean. Amari ez diot aitaren ezer esan, ezer ez baneki bezala jokatu dut. Azkenean iritsi gara, jaitsi gara hegazkinetik, denbora luzearen ostean, irten gara aireportutik, eta, taxi batean joan gara Greziako herri bateraino. Izan ere, amak esan zidan, gau bat pasatuko genuela Greziako herrian, eta hamar egun, uharte hartan. Gaua pasatu, eta goizean goiz, irten gara etxetik. Orain, itsasontzian goaz, uharte famaturantz, pozik nago, baina poz guzti horren gainera, urduritasuna dago. Ordu erdi falta dela entzun diot alboan daukadan gizonari. Oso luzea egiten ari zait, hamar minutu besterik ez dira pasa, eta, bost ordu egon naizela iruditzen zait. Kanpora atera naiz, ama barruan utzita. Itsasora begiratu, eta, bat-batean lasaitu egin naiz. Itsaso urdin urdina, oso bare dago olaturik gabe. Begiak itxi ditut, uraren soinu lasaia entzun, eta, gehiago lasaitu naiz. Ez dakit inoiz sentitu dudana sentsazio hau. Ez dut uste. Nire betiko etxean banengo bezala sentitzen naiz, nire etxea, hau dela sentitzen dut. Bizi naizen tokian baina gusturago sentitzen naiz. Bat batean, ama entzun dut:

-Xanet! Xanet! Lo al zaude? Iritsi gara.

-Bai, bai ama, banoa.

Gauza guztiak hartu, eta, itsasontzitik jaitsi gara. Hortxe zegoen gure hotela, pare parean. Berehala, aitarengana joateko gogoaz etorri zait. Inor bizi ez den uhartean bizi nahi dut, aitarekin. Hori besterik ez dut amesten momentu honetan. Amari esan behar diot. Iritsi da esateko unea: -Ama, gauza bat kontatu behar dizut- esan diot ahots larriz- Ama, lehengoan, burdinazko kaxa aurkitu nuen, aitarena. Dena dakit ama, frogak gairatu, eta, gutuna irakurri dut. Horregatik nahi nuen oporretara bertara etorri.

-Xanet, pentsatzen nuen horrexegatik izango zela. Zuk Greziakoa esatean, berehala pentsatu nuen hori izango zela. Gainera, aitak erakutsi zizkidan frogak egiteko erositako betaurreko, bainujantzi, eta, gauza guztiak. Eta, zure logelan ikusi nituen. Hori jakin nuenean, pentsatzen aritu nintzen. Pentsatu nuen, ideia ona izango zela aitari bisita bat egitea. Eta, ez haserretu nirekin, mesedez.

Ez nekien zer pentsatu, lehengo egunean bezain zuri nengoen. Beraz, kanpora irten naiz, segituan lasaitu naiz, begiak ixtean. Ama ikusi dut niregana gerturatzen, badirudi, bera ere, lasaitu dela.

-Xanet, gauza bat esan nahi dizut: Gaur, uhartera iristear geundela, aitarekin ezkondu nintzenean bezala sentitu naiz. Aspaldiko partez, aita maite dudala sentitu dut, berekin bizitzen hasi nahi dudala, bizitzako etapa berri bat bezala. Berdin zait, herrian edo uhartean, baina, aitarekin eta zurekin egon nahi dut, betirako. Behar baldin bada, uhartera bizitzera joango nintzateke. Baina, zuk ez baduzu nahi, zurekin itzuliko naiz, ez zaitut bakarrik utziko.

- Ama, gauzak, inoiz baina argiago ikusten ditut, hau da nire etxea, hemen bizi nahi dut, aita dagoen uhartean. Nire aita eta nire amarekin bizi nahi dut, inoiz sentitu ez dudan sentsazioa ematen didan lekuan, hau da, hemen.

Ez genuen zalantzarik egin, txalupa handi bat besterik ez genuen hartu bizitza berri hori hasteko.

-Agur denoi! Bizitza berri bat hastera goaz!- oihu egin genuen hirurok.